



GASTEIZKO JAIAK

**IRITSI DA OSPAKIZUNEZ GOZATZEKO GARAIA**



AURTENGO ANDRE MARIA ZURIAREN JAJETAN ERE

# EDALONTZI BERRERABILGARRIA



Edalontzia hartzean utzi euro bat

Aldatu behar duzun aldiko

Berreskuratu utzitako euroa



Andre Maria Zuriaren jai hauetan erabilera bakarreko plastikozko edalontziak berrerabilgarri batekin ordezkatzeko proposamena luzatu nahi dizugu.



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



**alea**

**336**

**2022-07-29 OSTIRALA**

AZALEKO IRUDIA:

MIKEL BURUAGA



#### Bultzatzaileak



**berria goiena**

#### Argitaratzaileak

Arabako Alea Komunikazio Taldea

#### Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

#### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Juanma Gallego

Estibx Ugarte

Mikel Buruaga

#### Komertziala

Erlantz Anda

Saioa Perez de Muniain

#### Inprenta

GERTU Inprimategia

**Tirada:** 3.500 ale

#### EGOITZA NAGUSIA

Zapatari kalea, 8

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

#### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

#### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

**Lege Gordailua:** VI-32-2015

**ISSN:** 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: [www.alea.eus/harpidetzak](http://www.alea.eus/harpidetzak)

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Julen Diaz de Argote, Gasteizko Mugimendu Feminista, Arabako Bertsozale Elkarte.

## Aurkibidea

- 4 Hiria, jaiak hasteko egarri.
- 12 Jesus Cantero: "Aurrenak gara arazoen tokira iristen, eta azkenak alde egiten".
- 14 Julen Diaz de Argote, 'Hiru urte eta gero...'
- 16 Gasteizko Mugimendu Feminista, 'Jai feministen alde'.
- 18 Festa leherrarazi dute blusek eta neskek.
- 20 Arrakala gainditzeko txupina.
- 22 Fiestrasek emango du hasiera.
- 24 Kultur ekitaldietan ere, libre.
- 26 Ruben Castillejo eta Aitziber Romero: "Saretzeko falta sumatu dugu; orain bai, gure momentua da".
- 28 Plastikoa, baina berrerabilgarri.
- 30 75 urte bete ditu txupinazoak.
- 32 Zortzikoa, alai eta dotore.
- 34 Loraldia ospatu du GEUK.
- 36 Foru plazan, kirola eskuetan.
- 38 Arabako Bertsozale elkarte, 'Plazara bueltan'.
- 40 Mundua beraiena izango da.
- 42 Agenda.

#### Laguntzaileak



**Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala**



**Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



# Hiria, jaiak hasteko egarriz

400 ekitaldi baino gehiago eskainiko ditu aurten Gasteizko jaietako programa ofizialak. Tanxugueiras, Izaro, Talco, Mikel Erentxun eta Rulo y la Contrabanda Foru plazan izango dira, eta Aihotz plazan Azido Folkloriko, Trikoma, Gozategi, Olatz Salvador, Harresian Zulo eta Neomak. Testua: **Erredakzioa.**

**A**urtengo jaiak ostegunean hasita eta bi urteko pandemiaren hausturak markatutako pausaldia kontuan hartuta, kaleak asteburu osoan jendez lepo izango direla aurreikus daiteke. Astelehena eta asteartea, ohi bezala, etxekoentzat izango dira, ala hobe esanda, oporretan kanpora joateko gogoia edo aukera ez duten etxekoentzat. Bejondeiela!

Jarduera kopuruari dagokionez, 2019ko programazioa mantendu eta areagotu du udalak, era guztietako partaideei zuzendutako egitarauarekin. Ekintza horiek guztiak hiriko hainbat tokitan antolatu dira, eta haietako batzuk berriak izango dira. Hala, 2022ko Andre Maria Zuriaren egitarauak 400 jarduera baino gehiago izango ditu, eta 836.000 euro bideratu dira guztira jaiak antolatzeko.

Udalak iragarri duenez, aurtengo jaiak garrantzi berezia emango diete bertako produkzioei eta musikariei. "Horren erakusgarri dira, esate baterako, Aihotz plazan emanaldia eskainiko duen Harresian Zulo; Peñafloidako Kondearen plazan eskainiko diren haur ikuskizunetako Bapatean Zirko, Hodei Magoa eta Two Much Circus". Nobedade handirik ez bada ere, ohiko eszenatokietan hainbat aldaketa iragarri dituzte udal agintariek. Hala, Umorearen Txokoak kokalekua aldatuko du Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategietatik Prado parkera, zabalagoa eta itzalpean dagoen espazioa delako. Abentura Gunearen kasuan, Prado parkeko ohiko kokalekua aldatu eta Arriaga parkera joango da. Bertan, puzgarriak, jolasak, kirol-pistak, *jumping*-a eta tirolinak izango dira. Erosotasun eta espazio gehiago lortu nahian egin den beste aldaketa bat da haurrentzako minidiskoena. Peñafloida Kondearen plazatik Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategietara igaroko da. ■







## AIHOTZ PLAZA

### EGUNERO(5-9)

**12:00-02:00** GEU elkarteko txosna.

**12:30** Trikitixa. Udal Folklore Akademiako Trikitilariak.

**21:00** Larrain-dantza eta Txulalai. Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileen eskutik.

### 5, OSTIRALA

**13:30** Bertso-saioa: Oihane Perea eta Nerea Elustondo. Gai-jartzailea: Uxue Diaz de Cerio. Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte.

**19:30** Txistularien kontzertua. Euskal Herriko Txistulariak, Udal Folklore Akademia, Indarra Dantza Taldea, Mulixka Dantza Taldea, Arkaitz Añorgako Dantzariak.

**24:00** Gozategi.

### 6, LARUNBATA

**13:30** Bertso-saioa: Maddi Agirre, Iñaki Viñaspre, Aitor Etxebarriazarraga eta Sarai Robles. Gai-jartzailea: Etxaun Otaño. Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte.

**19:30** Korrontzi.

**24:00** Olatz Salvador.

### 7, IGANDEA

**13:30** Bertso-saioa: Ekaitz Samaniego, Manex Agirre, Maddi Sarasua eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Nieves del Alamo. Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte.

**19:30** 'Harria', Mulixka Dantza Taldearen eta Iñaki Perurenaren eskutik.

**24:00** Harresian Zulo.

### 8, ASTELEHENA

**13:30** Bertso-saioa: Paula Amilburu, Orlando Arreitunandia, Joanes Illarregi eta Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea: Arantxa Sobrino. Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte.

**19:30** Harribitxi.

**24:00** Neomak.

### 9, ASTEARTEA

**13:30** Bertso-saioa: Andere



GOZATEGI

### Gozategi

**ABUZTUAREN 4AN, AIHOTZ PLAZAN, 24:00ETAN**

*25 urte taula gainean pasa ondoren, musikarekin emozionatzeko gaitasuna eta grinarekin jarraitzen dutela erakutsi nahi dute Gasteizen.*

Arriolabengoa, Unai Anda, Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzailea: Oier Suarez. Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte.

**19:30** Dantza Plazan, Udal Folklore Akademiarekin.

## TXOSNAK

### 4, OSTEGUNA

**20:30** Broken Brothers Brass Band taldearekin kalejira (Aiztogile kaletik txosnagunera).

**21:30** Inaugurazio ekitaldia eta txosnisaria.

**22:00** Kontzertuak: Ibilbedi, Vulk, Willis Drummond.

### 5, OSTIRALA: ELKARTASUN EGUNA

**15:00** Herri Bazkaria. Landatxo kiroldegian.

**20:00** Kontzentrazioa (Andra Maria Zuriaren plaza).

**20:30** Kalejira.

**21:00** Elkartasun eguneko ekitaldia (eszenatoki nagusia).

**22:00** Kontzertuak: Nihil, Tremenda jauria, Sara Hebe, DJ Pezon.

### 6, LARUNBATA: IKASLE EGUNA

**14:00** Ikasle bazkaria.

**16:00** Bazkari osteko jolasaldia.

**24:00** Ikasle eguneko ekitaldia.

**22:00** Kontzertuak: Zetalau, Garilak 26, Dj Malandro.

### 7, IGANDEA: GAZTE EGUNA

**14:30** Gazte bazkaria.

**23:30** Gazte eguneko ekitaldia.

**22:00** Kontzertuak: Tatxers, Brigade Loco, Rotten XIII, DJ Skarolo.

### 8, ASTELEHENA: ENTXOSNAZIO EGUNA

**12:00** Irrien lagunak ikuskizuna (alde zaharra).

**13:00** Marianitada musikatua (alde zaharra).



TREMENDA JAURIA

## Tremenda Jauria

**ABUZTUAREN 5EAN, TXOSNAGUNEAN, 22:00ETAN.**

*Aurten ere Elkartasun Eguna antolatu dute Gasteizko Txosnek; kontzertuan izango da Madrileko taldea.*

**14:30** Herri bazkaria (alde zaharra).

**19:00** Txosnibusa (Hala Bedi tabernatik txosnagunera).

**22:00** Kontzertuak: Sua, Soziedad Alkoholika, Dj Bihotza, Dj Villatek, Dj Sudo.

## 9, ASTEARTEA

**22:00** Kontzertuak: Hereneguna, Zetak, Dupla, Dj Ordezlagune, Dj Dantzetan jarrai.

## FORU PLAZA

**EGUNERO(5-9)**

**10:30** Arabar erako 55. bola-joko erakustaldia. Bolatokian.

Antolatzailea: Bola-jokoko Araba kluba.

**10:30** Andre Maria Zuriaren eskuz binakako txapelketa. Antolatzailea: Arabako Euskal Pilota Elkartea. Foru plazako pilotalekuan (euria egiten badu, Ogeta pilotalekua).

**12:00** Herri Kirolen Andre Maria Zuriaren txapelketa.

## 4, OSTEGUNA

**24:00** Tanxugeiras.

## 5, OSTIRALA

**24:00** Mikel Erentxun.

## 6, LARUNBATA

**24:00** Rulo y la contrabanda.

## 7, IGANDEA

**24:00** Izaro.

## 8, ASTELEHENA

**24:00** Talko.

## PRINCIPAL

## 4, OSTEGUNA

**22:00** *Escape Room*. Antzezleak: Antonio Molero, Kira Miro, Leo Rivera eta Marina San Jose.

## 5, OSTIRALA

**19:30** *Escape Room*. Antzezleak: Antonio Molero, Kira Miro, Leo Rivera eta Marina San Jose.

**22:00** *Escape Room*. Antzezleak: Antonio Molero, Kira Miro, Leo Rivera eta Marina San Jose.

## 6, LARUNBATA

**19:30** *El peligro de las buenas compañías*. Antzezleak: Fernando Cayo, Carmen Conesa, Ernesto Arias, Miriam Montilla.

**22:00** *El peligro de las buenas compañías*. Antzezleak: Fernando Cayo, Carmen Conesa, Ernesto Arias, Miriam Montilla.

## 7, IGANDEA

**19:30** *El peligro de las buenas compañías*. Antzezleak: Fernando Cayo, Carmen Conesa, Ernesto Arias, Miriam Montilla.

**22:00** *El peligro de las buenas compañías*. Antzezleak: Fernando Cayo, Carmen Conesa, Ernesto Arias, Miriam Montilla.

## 8, ASTELEHENA





**19:30** *Aguafiestas*. Antzezleak: Josema Yuste, Santiago Urrialde, Maribel Lara, Vicente Renovell, Kiko Ortega, Arturo Venegas.

**22:00** *Aguafiestas*. Antzezleak: Josema Yuste, Santiago Urrialde, Maribel Lara, Vicente Renovell, Kiko Ortega, Arturo Venegas.

### 9, ASTEARTEA

**19:30** *Aguafiestas*. Antzezleak: Josema Yuste, Santiago Urrialde, Maribel Lara, Vicente Renovell, Kiko Ortega, Arturo Venegas.

## ARKA PLAZA

### 4, OSTEGUNA

**24:00** Dantzaldia: Akerbeltz.

### 5, OSTIRALA

**24:00** Dantzaldia: Koxkor.

### 6, LARUNBATA

**24:00** Dantzaldia: Joselu Anaiak.

### 7, IGANDEA

**24:00** Dantzaldia: Lixker.

### 8, ASTELEHENA

**24:00** Trikiteens.

## PLAZA BERRIA

### 4, OSTEGUNA

**24:00** Miami Show orkestra.

### 5, OSTIRALA

**12:00** Gasteizko zortzikoa. Soka Dantza. Gasteizko dantzariak. Udal Txistulari Banda. Kalejira, Udal Folklore Akademiako trikitilarien eskutik.

**24:00** Diamante Show Band orkestra.

### 6, LARUNBATA



E.LANAO

### Arabako Zortzikoa

**ABUZTUAREN 5EAN, PLAZA BERRIAN, 12:00ETAN**

*2004 urtetik, Indarra dantza taldeak berreskuraturako dantza. Ordutik, udalbatza dantzariekin batera ateratzen da plazara.*

**12:00** Kalejira. Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Biotzatarrak fanfarrea eta trikitilariak.

**24:00** LOS40 Classic: Jorge Sanchez eta Modestia Aparte.

### 7, IGANDEA

**12:00** Kalejira. Udal Folklore Akademiako trikitilarien eskutik.

**24:00** Wellcome Band orkestra.

### 8, ASTELEHENA

**12:00** Kalejira. Udal Folklore Akademiako trikitilarien eskutik.

**24:00** La Fania Perfect orkestra.

### 9, ASTEARTEA

**12:00** Kalejira. Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, fanfarrea eta trikitilariak.

**23:00** Maremagnum orkestra.

## FLORIDA PARKEA

### EGUNERO(5-9)

**13:00** Kontzertua: Udal Musika Banda.

### 4, OSTEGUNA

**19:00** Dantzaldia: Jamaica orkestra.

# artepan



GOIENA

### **Antton Telleria**

**ABUZTUAREN 8AN, PRADO PARKEAN, 19:00ETAN**

*Antton Telleria komunikatzaile, kazetari eta umoregile tolosarra izango da Umorearen Txokoan. Barre egiteko gogo duena badaki nora jo.*

### **5, OSTIRALA**

**19:00** Dantzaldia: Belle & Blue orkestra.

### **6, LARUNBATA**

**19:00** Dantzaldia: Pergola orkestra.

### **7, IGANDEA**

**19:00** Dantzaldia: Galea orkestra.

### **8, ASTELEHENA**

**19:00** Dantzaldia: Yatagan orkestra.

### **9, ASTEARTEA**

**19:00** Dantzaldia: Pensilvania orkestra.

## **PRADO PARKEA**

### **5, OSTIRALA**

**12:00** Jotak: Voces de Navarra.

**19:30** Umore txokoa: JJ.Vaquero eta Iñaki Urrutia.

### **6, LARUNBATA**

**12:00** Jotak: Acordes Navarros.

**19:30** Umore txokoa: Axlór Riezu, Sergio Arrospide eta Leire Orbe.

### **7, IGANDEA**

**12:00** Jotak: Voces del Ebro.

**19:30** Umore txokoa: Sara Escudero.

### **8, ASTELEHENA**

**12:00** Jotak: Jotas D'Aragon.

**19:30** Umore txokoa: Antton Telleria.

**Euskaraz.**

### **9, ASTEARTEA**

**12:00** Jotak: Los 5 Bilbainos.

**19:00** Umore txokoa: Joaquin Pajaron.

## **PROBINTZIA PLAZA**

### **5, OSTIRALA**

**23:00** Kontzertua: Mariachiak, Mexico Lindo.

### **6, LARUNBATA**

**23:00** Kontzertua: David Civera.

### **7, IGANDEA**

**23:00** La Polakaren show-a: *La cassette del recuerdo.*

### **8, ASTELEHENA**

**23:00** Nacho de la Rosa eta Los Hidalgos, Los Panchosen omenez.

### **9, ASTEARTEA**

**19:00** 80ko eta 90ko harmakadetako musika. *La Poptelera.*

## **FALERINA**

### **5, OSTIRALA**

**19:00** Kontzertua: I Think Soul.

**20:30** Kontzertua: Código Habana.

### **6, LARUNBATA**

**19:00** Kontzertua: Lehia.

**20:30** Kontzertua: Pasadena.

### **7, IGANDEA**

**19:00** Kontzertua: Gwa Ya.

**20:30** Kontzertua: Siroco.

### **8, ASTELEHENA**



Julián de Apraiz, 1  
01012 VITORIA-GASTEIZ

**19:00** Kontzertua: Lola.

**20:30** Kontzertua: Negra Cucaracha  
Terrorfolk.

### 9, ASTEARTEA

**19:00** Kontzertua: Déjà Vu.

**20:30** Kontzertua: Last Link.

## HAN ETA HEMEN

### ERDIALDEA

**5-9, 12:00etan eta 13:00etan.**

Erraldoi, buruhaundi, zaldi eta txoten konpartsaren kalejira. Ibilbide desberdinak.

**5-9**, joateko kalejira neska eta blusen kuadrillen eskutik, Plaza Berritik Berpizkundearen plazara.

**16:30ean** Federazioa eta **17:00etan** Batzordea. Itzultzeko kalejira.

**20:00etan** Federazioa eta **20:30ean** Batzordea.

**5-9, 23:30ean**, Zezen suzkoak, Olagibel kalean.

**4, 22:00etan**, Farolen Arrosarioko prozesioa erdialdetik.

**5, 07:00etan**, Egunsentiko Arrosarioko prozesioa. Ordubete beranduago, egunsentiko meza Andre Maria Zuriaren plazan.

**5, 09:00-14:00** Andre Maria Zuriari lore eskaintza. Neska eta Blusa kuadrillen eskutik.

**5, 12:00etan**, Gasteizko zortzikoa.

Soka Dantza. Gasteizko dantzariak. Udal Txistulari Banda. Plaza Berrian.

**5, 13:00etan**, Omenaldia ikurrinari Plaza Berrian eta Algara dantza taldearen emanaldia.

**6, 12:00etan**, San Bizente aldatatik behera joango dira blusak Gasteizko V. goitibehera jaitsieran.

**7, 11:00etan**, Edurne eta Zeledon Txikiren ohorezko aurrekua, Andre Maria Zuriaren irudiaren aurrean lore eskaintzarekin batera. **12:00etan**, Edurne eta Zeledon Txikiren jaitsiera: Udal Musika Banda eta Udal Txistulari Banda eta Buruhandien konpartsaren dantzaldia.

**8, 09:00etan**, meza, lore-eskaintza eta ohorezko aurrekua, neska eta blusa beteranoek eginda.

**8, 24:00etan**, VI. gau-kalejira eta fanfarreen erakustaldia.

**9, 22:00etan**, Ogeta frontoian. XXVIII. Andre Maria Zuria gizezkoen esku pilota txapelketa eta Ogetaren oroimeneko XIX.a. Finala

### SANTA BARBARA PLAZA

**4tik 9ra**, Andre Maria Zuriaren

jaietako azoka, **11:00-14:30 eta**

**16:30-01:00; eta abuztuaren 9an 02:00etan itxiko da.**

### JUAN DE AIALA PLAZA

**4tik 9ra**, zoko arabiarra:

arabiar janaria, artisautza eta

animazioa, **12:00-14:30 eta 18:00-02:00.**

### MENDIZABALA

**5-8, 23:00:** Gasteizko Piroteknia ikuskizunen nazioarteko XVIII.

erakustaldia: Caballer FX (Valentzia), PiBierzo piroteknia (Leon), Zarzoso (Castelló), eta Ciels en Fete (Frantzia) piroteknia. Eman botoa piroteknia onenari, [vitoria-gasteiz.org/webgunean](http://vitoria-gasteiz.org/webgunean) edo 010ean.

**Uzt. 22-Abuz. 10:** Mendizabaleko feria lekuan, barrakak merkeagoak izango dira (instalazio handi batzuetan izan ezik): **uztailak 28an, arratsalde; abuztuak 6an, 11:30etatik 14:30era; abuztuak 10ean, arratsalde.**

## UMEENTZAKO

### EGUNERO(5-9)

**10:30ean** Bigantxak. Iradier Arenan.

**11:30-14:00/17:30-21:00:**

Abentura gunea haur eta gazteentzat: Puzgarriak, jolasak, kirol pistak, abentura-gunea Birjolastu: Gu-gu Ga-ga gunea, berreraiketak, ontziralekuak, okindegia. Arriagako parkean.

**12:00-14:00:** Gargantua. Arriagako parkean.





**18:30-20:30:** Gargantua. Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategia.

#### 4, OSTEGUNA

**19:30** Haurrentzako dantzalekua: DJ Maite. **Euskaraz.** Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategian.

#### 5, OSTIRALA

**12:30** Trokolo antzerkia, 'Txux eta txu'. **Euskaraz.** Peñaflovida Kondearen plazan.

**19:30** Haurrentzako dantzalekua: DJ Endika. **Euskaraz.** Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategian.

#### 6, LARUNBATA

**11:00** Jolasak. Antolatzailea: Siberiarak taldea. Artium plazan.

**11:00** Haurrentzako XVI. Margolaritza lehiaketa. Antolatzailea: Nekazariak taldea. Plaza Berrian.

**12:00** Jolasak, Basatilandia. Antolatzailea: Basatiak taldea. Urrezko Zeledonon plaza.

**12:30** Ikuskizuna. Bapatean zirko. *Adabaki.* Peñaflovida Kondearen plaza.

**17:30-20:00** Ginkana. Antolatzailea: Okerrak taldea. Arka plaza.

**19:30** Ikuskizuna. *Dantza Saltsa.* Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategian.

#### 7, IGANDEA

**10:30** Txikien argazkiak, XXVI.



ESTI LANA O

#### Erraldioen kalejira

##### ABUZTUAK 5-9

*Kale nagusietatik egingo du kalejira erraldioen, buruhandien eta zaldien konpartsak.*

edizioa. Antolatzailea: Bereziak taldea. Plaza Berrian.

**11:00** Jolasak: Elkartasunezko Siroko-Zoroak, AFANIS elkartearekin Antolatzailea: Zoroak taldea. Urrezko Zeledonon plaza.

**12:00** Jolasak. Antolatzailea: Zintzarri. Arka plaza.

**12:00** Haurrentzako twisterra. Antolatzailea: Belakiak taldea. Santa Barbara Plazako Pergola.

**12:30** Ikuskizuna. Producciones Kinser *Bromas dulces como la miel.* Peñaflovida Kondearen plaza.

**19:30** Ikuskizuna. Dj Loro Familiarentzako musika. Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategian.

#### 8, ASTELEHENA

**11:00** *Margotxef,* haurrentzako gastronomia-jarduera Antolatzailea: Gasteizko Margolariak taldea. Andre Maria Zuriaren plaza.

**12:00** Apar-festa txikientzat Antolatzailea: Batasuna taldea. Urrezko Zeledonon plaza.

**12:30** Ikuskizuna. Hodei Magoa. *Harritzearen abilezia.* **Euskaraz.** Peñaflovida Kondearen plaza.

**18:00-20:00** Herri-kirolak haurrentzako. Antolatzailea: Txolintxo taldea. Probintzia plaza.

**19:30** Ikuskizuna. Sustrai Doinuak. *Giro onean hobe dantzatzea.*

**Euskaraz.** Fernandez de Pierola Apezpikuaren lorategian.

#### 9, ASTEARTEA

**12:30** Ikuskizuna. Two much circus. *Double Bill.* Peñaflovida Kondearen plaza.

**18:30** Haurrentzako entzierroa. Andre Mari Zuriaren plaza.

RPS 84/14

FARMACIA  
PUENTE  
1.826

San Frantzisko Kalea, 21 Gasteiz  
www.farmaciapuente.com

Lizarralde soinua  
**TXALAPARTA S.L.**

Audio Profesionala, Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus  
txala@txala.euskalnet.net  
945 22 69 77  
GASTEIZ

# "Aurrenak gara arazoen tokira iristen, eta azkenak alde egiten"

**JESUS CANTERO** ARABAKO GURUTZE GORRIAREN PRESIDENTEA

Hiriaren Urrezko Domina emango diote jaietan Arabako Gurutze Gorriari. 10.000 kide, 150 enpresa babesle, 2.000 boluntario eta 100 profesional inguru aritzen dira Araban erakunde humanitarioaren alde.

## **JUANMA GALLEGO**

Erakundearen sorreraren 150 urte betetzen diren honetan, Gasteizko Udalak abuztuaren 5ean emango dio hiriaren Urrezko Domina Arabako Gurutze Gorriari. "Pertsona, erakunde edo korporazioek hiriari zerbitzuak emateagatik edo hari ohoreak emateagatik aurkezten dituzten aparteko merezimenduak saritzen" dira aitortza horren bidez. Erakunde humanitarioaren kasuan, haren "ibilbide nabarmenagatik eta gehien behar duten kolektiboek eskaintzen dien dedikazioagatik" emango diote. Bertan boluntarioa da Jesus Cantero (Donostia, 1971), bai eta Arabako Gurutze Gorriaren presidentea ere.

### **Nola jaso duzue Urrezko Domina emango dizueten berria?**

Hori jasotzeagatik asko pozten gara, noski, eta eskertzen dugu. Baina halako aitortzek ez dute egingo guk gehiago ala gutxiago lan egitea. Kanpotik etortzen zaizkigun aitortzak jaso ala ez, lanean berdin jarraitzen dugu.

### **Maila pertsonalean, zer eraman zintuen boluntario izatera?**

Ikasketak bukatu nituenean, 1997 edo 1998 urtearen bueltan, denbora libre gehiago izan nuen, eta pentsatu nuen ondo

zegoela besteei laguntzea. Bestetik, artean soldaduska zegoen, eta ni kontzientzia eragozlea nintzenez, aurretik hor emandako denbora konbalidatu nuen.

### **Gauza andanatan murgilduta ibiltzen zarete beti. Nola kudeatzen dira horrenbeste fronte aldi berean?**

Tira, askotan diogu erakunde hau izozmendi baten antzekoa dela. Ikusten da goiko punta, arreta gehien ekartzen duena. Hor sartzen dira, adibidez, anbulantziak edo osasun arreta... baina uraren azpitik askoz handiagoak gara, eta hor aise ikusten ez diren gure

lanaren alor asko daude: uneak, adinekoak, formazioa, laguntza... gauza asko eta asko. Ez da hain konplikatua, boluntarioen erakunde bat izan arren, gure atzean profesional talde bat dagoelako ere, jardun hori guztia kudeatzeko. Guk pautak ezartzen ditugu, eta profesionalek lan administratiboa egiten dute pauta horiek bideratzeko. **Zaila izango da erantzutea, baina, zein da orain gairik premiazkoena?** Asko ditugu. Errefuxiatu krisiarena da horietako bat. Ez soilik Ukrainakoak, beste herrialde askotakoak ere. Krisi



Cantero boluntarioa da, eta erakundearen presidentea Araban. ARABAKO GURUTZE GORRIA

energetikoa eta prezioen igoera ere gai larria da. Bada jende asko fakturak eta elikagaiak ordaindu ezin ditzakeena.

Arazo ekonomikoak dituen jende asko datorkigu. Guregana etortzen den jendea modu integrarean artatzen saiatzen gara. Saiatzen gara formazioa ematen, lan bat lor dezaten lagundu nahian. Seme-alabak dituztenean, *eskola arrakasta* deitzen duguna lantzen dugu beraiekin, klase partikularrekin, eta askari osasuntsu bat bermatuz, adibidez.

**Halakoetan, seguruenera erresistentzia batzuk aurkituko dituzue...**

Bai, baina azkenean konpromisoa beti bi aldeetako izan behar da. Gu saiatuko gara elikagaiak edo fakturak ordaintzen, baina, modu berean, arau batzuk betetzeko

## "GURUTZE GORRIA IZOZMENDI BATEN ANTZEKOA DA: GURE LANAREN ZATI HANDI BAT EZ DA IKUSTEN"

eskatzen dugu, hala nola ikastaroetan parte hartzea edo jarraipen bat egin ahal izatea.

**Arabian 2.000 boluntario inguru zarete. Zaila da horiek guztiak kudeatzea?**

Egia da konplikatu dela boluntarioen kudeaketa, eta erakundearen babespean mantentzea ondo formatuta eta erakundearen printzipioen arabera lan egin dezaten. Baina boluntario gehiagorekin gauza gehiago egin ahalko genituzke, noski. Azken finean, gertatzen dena gertatzen dela, aurrenak

izaten gara arazoak dauden lekuetara iristen, eta azkenak alde egiten.

**Baita kameren fokua beste norabait joaten denean ere...**

Hain justu. Badira gai asko gaurkotasunaren barruan ez daudenak, eta, halere, guk hor jarraitzen dugu. Eta hori jende askoren ekarpenari esker egin dezakegu: Araban 10.000 bat bazkide ditugu, eta 150 enpresa kolaboratzaile... horiei esker gure jarduna modu independentean egin ahal izateko dirua daukagu erakundean gauden 2.000 boluntarioek eta 100 profesionalek. Eta horretan jarraitzeko asmoa dugu. Azken finean, beste pertsona batzuei laguntza ematen dieten pertsonak baino ez gara, baina, horretarako, sustengua behar dugu. ■



GASTEIZKO  
JAIK  
2022

gora herri jaiak!

Lor-  
tuiko  
dugu

ehbildu



# Hiru urte eta gero...



**JULEN DIAZ DE ARGOTE**

ARKEOLOGOA

**G**asteizko jaiak hurbiltzen doaz eta hauekin batera gure tripetan sortzen doan zurrunbiloa handituz doa. Espektatibak oso handiak dira, gaur egungo TikTok-en erritmoan bizi den gizarte honentzat bi urtek hamarkada bat baitirudite.

Guztiz ezohikoa da bizi izan duguna, 1936-1941 tartean bakarrik geratu ziren bertan behera Gasteizko jaiak, nahiz eta 1976. urtean hau gertatzeko hurbil egon. Baina pandemia honek, nire ustez, bi aldaketa kultural handi eragin ditu.

Batetik, distantzia soziala. Hau jendea agurtzeko eran ikusi dezakegu, hotzagoak bilakatu baikara. Zelan eragingo die honek hain emozionalak izan ohi diren jai batzuei? Zenbat besarkada ematen ditugun jaietan egun tarte horietan bakarrik ikusten dugun jendearekin. Zenbat mikrokuadrilla sortzen diren egun horietan, zenbat adiskidetasun.

Bestetik, ikusi beharko dugu zer eragin izango duen pandemian zehar bizi izan dugun jai-orduen aurrerapen horrek. Gaueko farrak behera egingo du eguneko jai giroaren mesedetan? Nik beti egin izan dut eguneko jaien gorazarrea.

Blusa eta nesken kuadrillak, txosnak, erraldoi eta buruhandien konpartsa, udal musika banda, herri kirolak, kontzertuak... pertsona orok dauka gustorago sentitzen den espazioa eta ekitaldia aukeratzeko aukera. Edozein momentutan ikusiko duzu kanpoko jendea zapia jantzita, txaranga batekin dantzatzen ala blusa batekin *vacaverde* bat partekatzen. Eta hori da Gasteizko jaien gauza handienetariko bat, jai anitz eta integratzaileak direla.

Abuztuaren 4an, arratsaldeko seietan, jaia zerutik jaitsiko da berriz ere, hiru urteren ostean. Beraz, goza itzazue jaiak bakoitzak gehiago disfrutatzen duen lekutik, errespetuz, beti ere. Jan, edan, dantzatu, besarkatu, maitatu, aldarrikatu, partekatu, baina batez ere...

Gozatu!

Gora Gasteizko jaiak! ■■■

**"TIKTOK-EN  
ERRITMOAN BIZI DEN  
GIZARTE HONENTZAT, BI  
URTEK HAMARKADA  
BAT DIRUDITE"**

Meet

Mugikordainketa

Argitu

Online hipoteka|

Dispon

LK Pay

Bizum

— Yolanda Munin Freire  
Bulego-gestorea, Zornotza

ERREMINTA DIGITAL GUZTIAK DITUGU ZURETZAT.

## Eta ondoan norbait bazenu horietaz baliatzeko?

Meet, Bizum, identifikazio biometrika... Dozenaka tresna digital ditugu zuretzat. Baina horiek erabiltzea da kontua, ez zaizu iruditzen?

Horregatik, behar duzun guztietan, LABORAL Kutxan **gestore bat izango duzu ondoan, horiek azaldu eta erabiltzen laguntzeko.**



**LABORAL**  
kutxa

Bada beste modu bat

# Jai feministen alde



GASTEIZKO MUGIMENDU FEMINISTA

**J**aiek askotan salbuespenezko egunak dirudite, parentesi arteko denbora. Baina, kontrara, komunitate baten ordena soziala, era kondentsatuan, ageriago agertzen da: nor dagoen erdigunean eta nor bazterrean; nork betetzen dituen oholdzak, plazak eta kaleak; nortzuk geratzen diren etxeko txokoan; nork duen nahi bezala jokatzeko zilegitasuna; eta zein izan daitekeen zaurgarri(ago). Testuinguru honetan eraso matxisten ofentsiba ere nabaria da.

Horregatik, urteetan aritu gara feministak jai garaian gure salaketa eta aldarriak noranahi zabaltzen eta eraso matxisten kontrako ekimen eta ekintza molde berriak sortzen eta praktikara eramaten. Gasteizko Mugimendu Feminista 2014az geroztik ari da, gero eta auzo gehiagotan eta eragile gehiagoren konplizitatez protokoloak bultzatzen eta indarkeria matxistaren kontrako kontzientzia hedatzen eta sakontzen. Lan handia egina dela ukaezina da; bestela, gogoratu besterik ez dago, duela urte gutxira arte Gasteizko jaietan umore eta tradizioa zela, pegatina bat itsatsiz, neskei titiak ukitzea; umiliazio eta eraso fisiko zuzena, alegia. Edota, esaterako, 2019ko jaien atarian Gasteizko Udaltzaingoak, emakumeei jasan zitzaketen eraso erantzukizuna leporatuta, kontuz ibiltzeko aholkuak ematen zizkien eta paternalismo ustelena zerien eskuorriak kaleratu zituenekoa. Horren aurrean Mugimendu Feministak argi utzi zuen ez zuela onartuko emakume, trans eta bolleraren askatasunaren kontrako horrelako alekzionamendu murriztailerik.

Hala ere, bide luzea dugu egiteko. Sistema heteropatriarkalean sortzen diren botere harremanak jaietako eremuetan ere erreproduzitzen direnez, ezinbestekoa da jaien antolaketa eta garapenean ikuspegi feministatik jardutea: jai batzordearen antolaketa (erabaki gune eta lan-banaketan), egitaraua osatzeko jarraitzen diren irizpideak zehaztean (parte-hartze parekide eta anitza bermatzeko), erasoak aurreikusi eta aurre egiteko protokoloak egitea eta komunikazio ez sexista erabiltzea.

Egin beharreko lanketa norbanako guztiona da lehenik, guztiok erreproduzitzen baititugu bereizkeria egoerak edo haien konplize baikara. Baina lanketa kolektiboa ere izan behar da, antolakuntza eremuetako jarduna birpentsatu eta zalpalkuntza egoerei aurre egiten diena. Eta lanketa hau ez da soilik zapalkuntza egoera horiek jasaten ditugun emakume eta sexu-genero disidenteen ardura; bada garaia gizonak ere urratsak egiten has daitezen, beren pribilegioez ohartu, uko egin eta eraso konplize izateari utzi. ■

**"ORDENA SOZIALA  
AGERIAGO AGERTZEN  
DA: NOR DAGOEN  
ERDIGUNEAN, NOR  
BAZTERREAN..."**

Homofobia · Lesbofobia · Bifobia · Transfobia

# SALATU!

## TELEFONOA

☎ 633 309 653

## ONLINE SALATU



[www.ikusgune.eus](http://www.ikusgune.eus)

## POSTA

✉ [info@ikusgune.eus](mailto:info@ikusgune.eus)

## SARE SOZIALETAN

f @ikusgune.behatokia

🐦 @ikusgune

## EGOITZA

📍 Pintoreria kalea 23  
01001 Vitoria-Gasteiz  
ARABA







## Festa leherrarazi dute blusek eta neskek

Santiago Egunean, eta hiru urteren ostean, Gasteizko kaleetara itzuli dira blusa eta nesken kuadrillak, baita baratzurien azoka, nekazaritza azoka, upelen lasterketa eta kalejirak ere. Guztira, 27 kuadrilla eta sei milatik gora blusa eta neska izan dira jaietako beroketa lanetan. Aurten, gainera, bi sari entregatu dituzte kuadrillek. Nesken eta Blusen Elkarteen Federazioak Urrezko Abarka eman dio aurten Gasteizko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsari. Egindako ahalegina aitortzen du sariak, "musika eta alaitasuna animatuz eta eramanez Gasteizko kaleetan zehar 1917az geroztik". Halaber, Gorka Oribe zientzialaria, Xabier Añua saskibaloia entrenatzaile ohia eta Gorka Aginagalde aktorea saritu dituzte Zintzarri sarien XX. edizioan. **Argazkia: Mikel Buruaga. ■■■**



**Bidali zure  
argazkiak testu  
labur batekin:  
erredakzioa@alea.  
eus**

## 4 OSTEGUNA

20:30 **BROKEN BROTHERS BRASS BAND**  
tutikerekin kalejira. [inuitik + txosnaguna]  
21:30 Inagurazio ekitaldia eta txosnaria.  
22:00 kontzertuak

**IBILBEDI  
VULK  
WILLIS DRUMMOND  
AIARALDEKO SOINU SISTEMA**

## 5 OSTIRALA

elkartasun  
eguna

15:00 Herri bazkaria. [indioekin kalejira]  
20:00 Kontzertuak. [indioekin zuzen plaza]  
20:30 Kalejira. [indioekin kalejira + txosnaguna]  
21:00 Elkartasun eguneko ekitaldia. [indioekin]  
22:00 kontzertuak

**NHIL  
TREMENDA JAURIA  
SARA HEBE  
DJ PEZON**

## 6 LARUNBATA

ikasle  
eguna

14:00 Ikasle bazkaria. [indioekin kalejira]  
16:00 Bazkari osteko jolasaldia. [indioekin kalejira]  
00:00 Ikasle eguneko ekitaldia. [indioekin]  
22:00 kontzertuak

**ZETALAU  
GARILAK 26  
DJ MALANDRO**

## 7 IGANDEA

gorte  
eguna

14:30 Gorte bazkaria. [gorte kalejira]  
23:30 Gorte eguneko ekitaldia. [indioekin]  
22:00 kontzertuak

**TATKERS  
BRIGADE LOCO  
ROTTEN XIII  
DJ SKAROLO**

## 8 ASTELEHENIA

entxosnazio  
eguna

12:00 **IRRIEN LAGUNAK** [kuskizuna] [alde zaharra]  
13:00 Marmitada musikaria. [alde zaharra]  
14:30 Herri bazkaria. [alde zaharra]  
16:00 **TXAN MAGAÑEN** [kuskizuna] [alde zaharra]  
19:00 Txosnabusa. [txosnabusa txosnabusa + txosnabusa]  
22:00 kontzertuak

**SUA  
SOZIEDAD ALKOHOLIKA  
DJ BIHOTZA  
DJ VILLATEK  
DJ SUDO**

## 9 ASTEARTEA

22:00 kontzertuak

**HERENEGUNA  
ZETAK  
DUPLA  
DJ ORDEZKAGUNE  
DJ DANTZETAN JARRAI**

**ENTXOSNAKU**  
HERRI MUGIMENDIAREN

**EN  
TXOS  
NA  
TU**

2022 KO  
ABUZTUAK  
4-9

ERASO  
matxistak  
E74

747 414 834

Talea

DIARIO  
berria

DIARIO  
berria

GASTEIZKO  
TXOSNAK.EUS



# Arrakala gainditzeko txupina

Elena Loyo eta Ruth Brito kirolariak, Maria Jose Saez de Kortazar ostalariak, Jaione Prado merkataria eta Arantza Navarro ikerlariak emango diote hasiera Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak.

## ERREDAKZIOA

Bost emakume "ausart, konprometitu, borrokalari eta beren lanbideetan erreferenteak" arduratuko dira Andre Maria Zuriaren jaietako txupinazoa botatzeaz abuztuaren 4an. Halaxe iragarri zuen Maider Etxebarria alkateordeak, aurtengo txupineroa hautatzeko txanda zuen udal talde sozialistaren bozeramaileak. Elena Loyo eta Ruth Brito kirolariak, Maria Jose Saez de Cortazar ostalaria, Jaione Prado merkataria eta

Arantza Navarro ikerlaria izango dira "une desiratu horren" protagonistak. "Berriz abiarazi eta maite ditugunekin eta gurea den horrekin berriro elkartzeko unea da".

Maider Etxebarria emakume horien guztien lana nabarmendu nahi izan du izendapen honekin, eta hiriko emakume guztiak omendu. "Gure desioa da kristalezko sabaia hausteko eta desberdintasunik gabeko mundu baten alde lan egiteko goizero jaikitzen diren gure hiriko emakume guztiak

emakume horiengan ordezkatuta sentitzea. Halaxe egiten dute emakume horiek egunero lehiatzen, taberna bateko barraren atzean arreta ematen, moda saltzen edo ikertzen. Heroiak dira beren munduan eta bidezkoagoa den gizartean bizitzeko beren ekarpena egiten dute", azaldu du. Gainera, honako hau gogorarazi nahi izan du: "Bizi garen gizartean, genero arrakala oraindik arazoa da maila askotan eta emakumeok horren biktimak gara emakume izateagatik". ■■■



Elena Loyo. GASTEIZKO UDALA

## Kirola

Atleta: 2020ko Joko Olinpikoetako maratoian Espainiako estatuko atleten artean sailkapen onena lortu zuen.



Ruth Brito. GASTEIZKO UDALA

## Kirola

Triatleta: entrenatzailea eta enpresaburua. Kirol horretan hasteko laguntza eskaintzen die emakumeei.



M. J. Saez de Cortazar. G.U

## Ostalaritza

Laster 23 urte beteko ditu Xixilu jatetxeko barraren atzean, eta, gainera, 16 urte dira jatetxeko jabea dela.





Jaione Prado. GASTEIZKO UDALA

## Merkataritza

Exclusivos Moda  
negozioa sortu zuen  
duela zortzi urte. Pintura,  
gainera, bigarren lanbide  
bihurtzea lortu du.



Arantza Navarro. G. UDALA

## Ikerkuntza

Tecnaliako ikerlaria da,  
eta, besteak beste,  
botika berrien ikerketa  
ugaritan hartu du parte  
Pharmalabs 4.0-en.



**Cándido Besa**  
U P A T E G I A

Arabako Elkartasun

**Herri  
Bazkaria**

| 2022 ABUZTUAK 5  
| 15:00  
| Landatxo kiroldegian

**25€**

*Txapelarri libreman solgai*

**PRESO ETAIHESLARIAK**  
gurekin bazkarietan!



# Fiestrasek emango du hasiera

Festival jaialdiko zuzendariak izango du abuztuaren 2ko pregoia emateko ardura. Hainbat hedabidetako kolaboratzailea ere bada, bereziki ikus-entzunezkoei eta gastronomiari lotutako gaietan.



Irailean egingo duten FesTVal jaialdiaren aurkezpenaren biharamunean jakinarazi du albistea udalak. FESTIVAL

## JUANMA GALLEGO

"Txundituta, ilusioz beteta, ustekabeen harrapatuta, eskertuta... biltzen zaizkidan sentimenduak dira Gasteiz nire hiriko jaien pregoilari naizela jabetzean". Modu horretan mintzatu zen publikoki Joseba Fiestras kazetaria joan den asteko ostiralean bera jaietako pregoilaria izango zen albistea zabaldu zenean. Aurten udalak ohi baino beranduago egin du iragarpena, eta horren bezperan izan zen FesTVal jaialdiaren aurkezpenean ere ez zen igarri erabakiak hartu behar zuen norabidea: abuztuaren 2an, 21:30ean, Fiestrasek irakurriko du jaietako pregoia.

FesTVal jaialdiaren zuzendaria izateaz gain, hainbat hedabideren kolaboratzailea da Fiestras, gehienetan, ikus-entzunezkoei lotuta. El Correo egunkarian telebista kritikak egiten ditu, eta azken asteotan gertutik jarraitu du *Supervivientes* saioan izandako nobedadeak, bereziki Anabel Pantojaren kaleratzea. "Bere saio erabakigarria izan zen, eta aise gauditu zuen", argitu du kazetariak bere kroniketako batean, Pantojak aurrean zuen *une zailari* erreferentzia eginez.

### Zinema, uhinetara

Vocento taldeko egunkarian ere ezagunak dira jatetxeen gaineko bere kritika gastronomikoak,

eta irratian ere urteak eman ditu zinemaren inguruko edukiak lantzen. Zehazki, Radio Vitorian *Bogart baila con lobos* irratsaioa zuzendu eta aurkeztu du 1996tik.

Alabaina, azken urteotan oso ezaguna egin da Gasteizen zein Gasteiztik kanpo Festival jaialdiagatik. 2009an martxan jarri zutenetik, iraileko hitzordu garrantzitsua bilakatu da ikus-entzunezkoen sektorean. Hilaren 5etik 11ra egingo da aurtengo edizioa, eta, lehen aldiz, EITBk zuzenean emango du jaialdiaren bueltan egiten den gala. Alfonbra gorria iritsi bitartean, Gasteizko jaiak hasiera emateko ardura izango du Fiestrasek. ■

# Asparrenean ere

# euskaraz

# bizi nahi dugu



**20 ARTIUM  
MUSEOA**  
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

## ERAKUSKETAK

- .Zeru bat, hamaika bide.  
Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian
- .Néstor Sanmiguel Diest.  
La peripecia del autómatas
- .Anna Daučíková.  
Not Belonging To and In Solidarity With
- .Erlea Maneros Zabala.  
The Voice of the Valley
- .Edurne Rubio.  
Clamor

## JARDUERAK

- .Udako lantegiak: Zomorro, landareak eta hainbat animalia  
6-12 urte bitartekoentzat  
EKAINAREN 28TIK IRAILAREN 2RA  
ASTEARTETIK OSTIRALERA, JAIEGUNAK IZAN EZIK
- .Eskolaz kanpoko jarduerak. 2022-2023 Ikasturtea  
2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era arte  
IZEN-EMATEAK 2022KO EKAINAREN 28TIK AURRERA
- .LORATEGItik abiatuta.  
Zeharkako bisita gidatuen programa  
ASTEAZKENERO, LARUNBATERO ETA IGANDERO

[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

# Kultur ekitaldietan ere, libre

Eraso sexistarik gabeko kultur guneetarako gomendioen gida aurkeztu du Emakundek, "erasoen mehatxuak ez dezala emakumeen askatasuna mugatu, ezta kulturaren arloan ere".

## ERREDAKZIOA

Behin eta berriz ekitea, zirriak egitea, nahi ez den kontaktu fisikoa, jende gutxi dabilen lekuetatik jarraitzea... Neska askok "baboseo" deitzen dute, eta zoritxarrez jaietan eta kultur ekitaldi masiboetan jasan "behar" ohi den zama da.

Kultur ekitaldi handietan gertatzen diren horrelako jokabideen aurrean hausnartzeko eta jarduteko gida berri bat kaleratu du Eusko Jaurlaritzak. Erasoen sexistarik gabeko kultur guneetarako gomendioen gida horretan, jokabide maskulino kaltegarrietan jartzen da fokua, sexu-eraso larria izan daitekeena baino sotilagoak baitira, "baina era berean kaltegarriak, jaialdietan, kontzertuetan eta kultura-ekitaldi handietan izan ohi den bilakaeraren parte baitira".

Espazio publikoa eta jaietako aisialdia tradizioz gizonezkoen espazioak izan dira, eta gizonen portaera hegemonikoa izaten ohi da horietan, "baina horrek ez du esan nahi ezin direnik aldatu; emakumeak ez dira inbaditzaileak, eta beraz, ez dira haienganako jokabide oldarkorrak normalizatu behar", esaten du gidak.

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak azaldu duenez, gidaren helburu nagusia da "aisialdi-eremuetan,



2019ko jaietako kontzertua, Foru Plazan. ALBERTO CABELLO

edozein motatakoak direla ere, emakumeen aurkako indarkeria ez normalizatzea edo banalizatzea: "Ez dezala inork pentsa zenbait espaziotan jokabide sexistak onar daitezkeenik; erasoen mehatxuak ez dezala emakumeen askatasuna mugatu, ezta kulturaren arloan ere".

Udako jaietako kultur ekitaldi masiboek eskubideen urraketa handien eremua bilakatu daitezkeela ohartarazi du gidak. Izan ere, jaietako espazioetan horren normalizatua dagoen alkoholaren eta drogen kontsumoaren barra librearen

logika berdina ezartzen da maiz, emakumeen aurkako jazarpen matxisten eta jokabide matxista tematien kasuan, eta "saihetsezintzat" hartzen dira, onartuak ez izan arren.

## San Fermineko ziztadak

Urrunera joan gabe, egoera horren adibide bat Iruñeko San Fermin jaietan izan da, orain dela hamabost egun. Sumisio kimikoko balizko zortzi kasuek eragindako alerta, ia guztiak emakumeek salatutakoak, "baldarkeria" ekintza huts bihurtu dira poliziaren ikerketaren ostean, nahiz eta ekintza, berez, eraso bat den.

Gasteizko bi gaztek ere, Florida kaleko diskoteka batean zeudela, ziztada bat sentitu zutela jakin izan da iragan astean.

Emakunderen gidak jasotzen duenez, azken urteotan, kultur ekitaldietan emakumeen parte hartzea modu esponentzialean handitu da. Ekitaldi horietara joaten diren pertsonen %58 inguru emakumeak dira. Bada, nahiz eta emakumeen presentzia handiagoa izan, ekitaldi horien antolaketa ez da egokitu errealitate berri horretara, "izan ere, oso espazio maskulinizatuak dira oraindik, ez seguruak emakumeentzat, orduak eta orduak eman baititzakete nagusi den maskulinitasuna ezaugarritzen duten jokabideen eta harreman moldeen mende, guzti-guztiak normalizatuak eta, areago, indarkeria matxista normalizatzen, justifikatzen edo gutxienera eramaten duten mezuekin eta sinboloekin goretsiak". Izan ere, eremu horietan emakumeen %57k pairatu du sexu indarkeria motaren bat, eta gizonen artean, berriz, %4k. ■■■



Eraso ororen aurrean "erantzun zuzena" emango dutela esan dute. M.FEMINISTA

## Alarma gorriak piztuta

Gasteizko Mugimendu Feministak eraso matxisten kontrako protokoloa jarri du abian, berriz ere, uda eta jai giroari begira. Jairik gabe bi urte luze egon ostean, aurten berriz ere premiazkoa ikusi dute protokoloa martxan jartzea, "eredu heteropatriarkalean oinarrituta dagoen jai giroak pribilegioaren erdiguneetatik kanpo geratzen diren gorputzak zapaltzen eta erasotzen jarraitzen duelako", esan dute. Nabarmendu dutenez, Gasteizko jaietan, Mugimendu Feministaren telefono zenbakia aktibo egongo da edozein salaketa, behar edo nahi komunikatzeko. Aurten, Whatsapp eta Telegram aplikazioen bidez komunikatzeko aukera egongo da, 747-414 834 telefonoan. Jainarazi dute, aurten, mugimendu feministak bazterrak astintzen jarraituko duela, "kaleetan, dantza plazetan, txosnetan eta bestelako espazioetan guri erasotzen segitzen duten bitartean, erantzuteko eta autodefentsarako deia egiten dugu".



## ALEGRIA-DULANTZIKO JAIK

Irailak, 9 Ostirala

00:00etan

## TREMENDA JAURIA

KONTZERTUAN

Herriko Enparantzan

*Alegria-Dulantzi*





# "Saretzeko falta sumatu dugu; orain bai, gure momentua da"

RUBEN CASTILLEJO ETA AITZIBER ROMERO TXOSNA BATZORDEKO KIDEAK

## ERREDAKZIOA GASTEIZ

Txosna gunerik gabe bi urtez izan eta gero, "berebiziko ilusioa" dute txosnetako kideek jaiak elkarrekin ospatzeko. Azken prestakuntza lanetan dabilta, besteak beste, Ruben Castillejo eta Aitziber Romero. **Nolakoa izan da berriz txosna gunea martxan jartzea?**

Norbanako bezala, baina eragile bezala ere, topatzeko, aldarrikatzeko eta gozatzeko aukera gutxi izan dugu bi urte luze hauetan. Eta, hain zuzen ere, hori dira Gasteizko Txosnak: herri mugimenduak bat egiteko, aldarrikatzeko eta giro sanoan gozatzeko espazioa. Lan handia da, noski baietz, urte osoan zehar militantziak ziprztintzen duen lan handia: bilerak, asanbladak, aurrera eramane dugun hausnarketa luzea... Baina merezi du, urtero merezi du.

**Diru iturri garrantzitsua dira txosnak. Nabaritu dute kolektiboek bi urteko eten hau?**

Bai, noski. Autogestioa oinarri duen edozein eragilek soberan dauk zer garrantzi duten txosnek, eta ez soilik Gasteizen.



Ruben Castillejo eta Aitziber Romero, txosna gunean. ALEA

Hala ere, aurreko galderatik tiraka, arlo ekonomikoaz gain elkartzeko, saretzeko eta aldarrikatzeko falta sumatu dugu. Baina orain bai, gure momentua da.

**Programazio potentearekin datoz aurten Gasteizko Txosnak. Aurten lotu duzue programazio osoa?**

Aurtengo programazioan badira kontzertuak 2020ko jaietarako lotuta zeudenak, beste asko, aldiz, aurtengo

kurtso osoko lanaren emaitza dira. Pandemiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean errealitate musikala, beste alor askorekin gertatzen den bezala, aldatu egin da. Eta Gasteizko Txosnetako eskaintza kultural eta musikala askoren plaza izan nahi du bereziki aurtengo jaietan.

**Zer berritasun izango ditu aurten txosna gunek? Txosnisaria nori emango zaion erabaki duzue jada?**

|                                                                                     |                      |                                                                                     |                       |                                                                                      |
|-------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
|  | <b>BAKARRIZKETAK</b> |  | <b>EKOIZPENAK</b>     |  |
|  | <b>ANTZEZLANAK</b>   |  | <b>MANAGEMENT</b>     |                                                                                      |
|  | <b>FAMILIARRAK</b>   |  | <b>www.ttipia.eus</b> |                                                                                      |

Aurten zazpi txosna, bi karpa eta karpa komun bat egongo dira unibertsitate eremuan. Bi espazio nagusiez gain (karpa komuna eta agertoki nagusia), gainontzeko txosna eta bi karpek ere euren programazio propioa izango dute. Bestalde, tokiaren banaketari dagokionez, aurten aldaketatzat batzuk espero dira; izan ere, tranbiaren obren eraginez, zenbait espazio birmoldatu behar izan dira, baina ikusten duzuenek campusean jarraituko du txosna guñeak. Txosnariaren berri abuztuaren 1ean bertan emango dugu, muntaketaren barruan egingo dugun azken agerraldian.

#### **Kontzertuekin batera, kolektiboek antolatutako ekitaldien artean zein nabarmenduko zenukete?**

Abuztuaren 8ko Entxosnatu eguna aipatuko dugu, izan ere, bi urteko etenaldiaren ostean, kolektibo zein norbanako oro elkartzeko eguna izango da hori. Gasteizko Txosnak 42 urtez osatu eta elikatu duten eragile eta norbanako guztiak batu eta ospatzeko eguna izatea nahi dugu. Alde Zaharrean ospatuko dugu aurtengo Entxosnatu eguna: 12:00etan Irrien Lagunak ikuskizuna, *marianitada* musikatua eta bazkaria, bertako produktuak lehen lerroan jarritz. Horretaz gain, abuztuaren 5ean elkartasun eguna, 6an ikasle eguna eta 7an gazte eguna izango ditugu, txosnagunea borroka anitzen plaza bihurtzeko nahiarekin.

#### **Auzoetako jaietan udalak komunak ez jartzeko erabakiak zeresana sortu du. Txosna guñean ere arazo bera duzue?**

Gure kasuan ez da horrela izan: udalak komunak jarriko ditu.

Hala ere, gure egiten dugu auzoetako jai batzorde ezberdinen salaketak: auzoak garbi mantentzea udalaren ardura da.

#### **Aurten ere eraso matxisten kontrako protokoloa martxan izango da Gasteizko Txosnetan, ezta?**

Bai, Mugimendu Femistaren eraso matxisten kontrako protokoloa izango dugu, eta edozein eraso prebenitu eta erasoak ematekotan aurre egiteko mekanismo eta lanketak prest ditugu. Erasoak salatzeko telefono zenbakia eskura jarri dute aurtengo jaietan ere: 747 41 48 34.

#### **Zer giro dago Herri Mugimenduko kolektiboen artean? Urduri**

#### **zaudete? Gogotsu? Txandak beteta jada?**

Momentuz, lanpetuta eta gogotsu gaude. Gogotsu, aurretik aipatu dugun guztiagatik; lanpetuta, baita ere, txosnen muntaketa egunek lan handia suposatzen dutelako. Eta eragile eta norbanakoek oso ongi erantzun duten arren, oraindik txandaren bat lotzeke dugu: aukera aproposa da txosnak are eta gehiago kolektibizatzeke, eta horregatik herritar guztiak abuztuaren 1ean hasiko ditugun muntaketa lanetara gonbidatuta gaude. Beti dago mugitzeko hesiren bat, ondo kokatzeko kañeroaren bat edota eszenatokian laguntzeko lanik. ■■■



Txosna Batzordeko eta ALEAko kideak, unibertsitate campusean. ALEA

## **Txosnak eta ALEA, lankidetzan**

Aurtengo Gasteizko jaietan Arabako ALEAK hartuko du Txosna eremuko babesletza nagusia. Euskalgintzan zein beste arlo batzuetan aritzen diren eragileekin batera komunitatea eratu eta sinergiak bilatzeko pausuak ematen joan da ALEA azken ia zortzi urte hauetan.

Illo horretan, Gasteizko Txosnekin elkarlana indartu eta harremana sendotzeko asmoa berretsi nahi izan dute bi aldeek. Modu honetan, elkartegintzan ari diren eragileei babesa adierazi nahi izan die ALEAK, egunerokoan egiten duten lana nabarmendu eta azken urteetan izandako harremanean sakontzeko pausuak ematen jarraitu nahi du.



Kutxiko taskeroek eta Auzo Txiki elkarteak 30.000 edalontzi banatuko dituzte. Udalak, beste 100.000 bat. KUTXIKO TASKEROAK

# Plastikoa, baina berrerabilgarri

Jaietan erabilera bakarreko plastikoa edota beira alde batera uzteko hainbat kanpaina martxan dira hirian. Behin baino gehiagotan erabili ahalko diren edalontzien erabilera sustatu nahi dute horiekin.

## ERREDAKZIOA

Azken urteotako joera garbia dago gizartean, baita festetan ere: erabilera bakarreko plastiko kontsumoa ahalik eta gehien murriztea. Beira alternatiba argia da: berrerabilgarria, higienikoa eta aise birziklatzeko modukoa da. Baina agerikoa da jende ugari biltzen den kasuetan arriskuak abantailak baino handiagoak direla, batez ere segurtasunari dagokionez.

Horretaz jakitun, gero eta ekimen gehiago daude gaiaren bueltan. Gasteizen aspalditik txosnak izan dira norabide horretan aitzindariak, baina formatua espazio berriak

hartzen ari da azken urteotan. Kasurako, eta 2019an egin bezala, udalak edalontzi hauen erabilera bultzatzeko kanpaina abiatu du, Vital Fundazioaren laguntzaz: aurtun 100.000 edalontzi berrerabilgarri banatuko dituzte, festetan erabiltzeko. Plastikoa, bai, baina ez erabilera bakarrekoa.

Vital Fundazioko arduradunek ziurtatu dute horiek 300 aldiz erabiltzeko modukoak izango direla — alajainkoa, ez da gomendatzen kopuru horretara iristea, ez gau bakarrean bederen—. Hala izanik ere, kalkulatu dute halako edalontzi bakoitzeko erabilera bakarreko plastikozko bost edalontziren erabilera

saihestuko dela. Halakoetan ohikoa den funtzionamendua izango du kanpainak: euro baten truke eskuratzen da edalontzia, amaieran euro hori berreskuratzeko aukerarekin. Momentuz, 30 bat tabernekin bat egin dute udalaren ekimenarekin, eta, teknologiaren mirariak, jaiaren zurrumbilo betean kontsultatu ahalko da ekimenean parte hartzen duten tabernen kokapena. Aitzogile kalean eta inguruetan ere soka berari heldu diote: Kutxiko Taskeroak eta Gasteiz Txiki elkarteek halako 30.000 edalontzi prest dituzte, bai eta katxi tamainako beste 5.000 edalontzi ere, animatuenentzat. ■

# OPORKLIK LIKOPOR

Parte hartu uztailak 18  
- Irailak 18 bitartean  
Info + [www.vitoria-gasteiz.org/gauekoak](http://www.vitoria-gasteiz.org/gauekoak)  
eta [alea.eus](http://alea.eus)  
16 - 30 urte bitartekoentzat

Beharrezkoak



Laguntzaileak/Colaboran:

**Talea**



Barrundian euskaraz  
bizi nahi dugul



*Barrundia,  
txikia bezain handia*

**Barrundiako Udala**



# 75 urte bete ditu txupinazoak

Goiuri plazatxoa, udaletxeko galeria eta San Migeleko balkoia; toki horietatik guztietatik jaurti dute azken urteetan Gasteizko jaiak iragartzen duen suziria. Alkateen pribilegioa zena, egun, herritarren esku dago.

## ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

1947ko abuztuaren 2an, 18:00etan, Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak iragartzeko lehen suziria bota zuten. Ziurrenik, Iruñeko jaietako txupinazoaren imitazio gisa egin zen, sei urte lehenagotik jaurtitzen ari zena. Jaurtiketaren lekua Goiuri plazatxoa izan zen, San Bizente aldaparekin bat egiten duen tokian, garai hartan hiriko alderik garaienean. Tokirik egokiena zelako aukeratu zuten, jendetzatik urrun, eta, gainera, suziria jaurtitzeaz arduratzen zen lehengo suhiltzaileen parkearen ondoan.

Ordura arte ez zuten txupinazoa iragartzen, jaien hasierako lehen eguna eta ordua urtero aldatzen zelako: berdin izan zitekeen abuztuaren 2an, 3an edo 4an, 08:00etan, 15:00etan edo 18:00etan. Halere, 1951tik aurrera, jai guztiak 18:00etan hasi ziren; eta 1953tik aurrera, abuztuaren 4an hasi ziren beti. Hala, 1956. urtetik aurrera, txupinazoa udaletxeko balkoi nagusitik bota zuten, eta 1966. urtean, Andre Maria Zuriaren plazako San Migeleko balkoira aldatzea erabaki zuten, udaletxea eta Plaza Berria zaharberritzeko lanengatik.

1956tik aurrera, gainera, alkatearen esku geratu zen txupinazoa jaurtitzeko ardura. Gobernatu zuen bost



1959ko txupinazoan, agintariak udaletxeko balkoian, Plaza Berrian. ATHA.SCH.PC01496



2006an, arrautzak jaso zituen Alonsok. EITB

legealdietan (1979-1999), txupinazoa botatzen aritu zen hiriko azken alkatea Jose Angel Cuerda izan zen. Ondoren, Alfonso Alonso PPko alkatearekin, 1999an

udalbatzak erabaki zuen talde politikoen txanda sistema bat ezartzea, handitik txikira, udal hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera, txupinazoa jaurtitzeko.

## Bi txupinazo

Hala izan zen 2002ra arte. Udal araudian ezarritako txanden arabera, urte horretan Batasunari tokatzen zitzaion jaietako txupinazoa botatzea, baina hori eragozteko, Batasunak ETAre indarkeria gaitzesten ez zuela argudiatuta, alkateak proposatuta, udaleko osoko bilkurak arau hori aldatzea onartu zuen.

Polemika handiaren ostean, 2002ko abuztuaren 4an, Batasuneko zinegotzi Jose Enrique Bertek txupinazo

alternatiboa jaurti zuen, Andre Maria Zuriaren plazako balkoi batetik, 17:59ean. Minutu bat beranduago, Gasteizko PPko alkateak, jaiei hasiera ematen zien txupinazo ofiziala botatu zuen, baina arrautza jaurtiketa galanta pairatu behar izan zuen eta txupina ertzainen armarriek babestuta botatu zuen.

Hurrengo urteetan ere ez zen bakerik egon San Migeleko balkoian. Mikel Martinez zinegotzi jeltxak jaurti zuen 2004an, eta balkoian bildutako agintariek pintura hori eta gorrix betetako arrautza eta puxika zaparrada jasan zuten. 2006an, Alonso bera izan zen okerrean pasatu zuena. Ospakizunak hasteko orduan, alkatea balkoira begira jarri zen, hiriko banderaren gainean, eta objektu zaparrada hasi zen. Bi arrautzek zuzenean jo zuten aurpegian.

#### **Herritarren txanda**

2007tik aurrera, PSOEko Patxi Lazkoz alkate zela, ohore hori elkarte edo pertsonen esku uztea erabaki zen. Besteak beste, Alfonso Alonsorekin izandako istiluak saihestu nahi zituzten zinegotziak. Hala, 2007an, Zeledonoren sortzaileek jaurti zuten suziria, eta, ondoren, Odol Emailek, udaleko kazetariek, talde euskaltzaleek, Elikagaien Bankuak, eta Martxoak 3 elkarteak suziria botatzen jarraitu dute.

Aurten, berriz, bost emakumek piztuko dute jaietako suziria, eta urtero bezala, suziria kanutoan ondo bildua joaten den Gasteizko bandera txiki-txiki batek goraino hegan egingo du, zerutik Arabako hiriburua jaietan dagoela iragarri.

# VITAL

**ARABAN  
ZEHAR**

## Vital ARABAN zehir

Programaren XVIII. Edizioa

Maiatzetik irailera

107 kultur emanaldi

66 herritan

www.fundacionvital.eus/eu/vital-araban-zehir-0

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat

# Zortzikoa: alai eta dotore

Arabako Zortziko berezia dantzatzen dute urtero abuztuaren 5ean, udaletxearen aurrean. Indarra Euskal Kultur Elkarteak berreskuratutako dantza da, duela mende bat idatzitako testigantzetan abiatuta.



Gasteizko Plaza Berrian dantzatzen dute urtean behin Arabako Zortzikoa, abuztuaren 5ean. INDARRA KULTUR ELKARTEA

## JUANMA GALLEGO

Abuztuaren 5ean goizeko hamabietan da hitzordua, Plaza Berrian. "Beren eginkizunak bukatzen dituztenean, udaleko kideak kalera ateratzen dira, alkatea eta kultura zinegotzia buru dituztela, Gasteizko banderarekin", azaldu du Indarra euskal kultur elkartearen lehendakariorde Josu Arcek. Ondoren, dantzariak sartzen dira, kalejira moduko batean. Bikoteka egiten dute. Gasteizko musika eskolako txistulariek lehen sarrera bat jotzen dute orduan, neska eta mutil guztiak lotsak alde batera utzi eta plazara atera daitezten.

Pixkanaka, plaza guztia dantzarietaz betetzen da. Zortziko "serioa" abiatzear da.

Serioa, bai. Zehazki, "*serio y ceremonioso*". Horrela deitu zion beste garai bateko kronista batek, eta bigarren batek ere seriotasun hori aipatzen du. Hortaz, seguru aski, hain serioak ez ziren zortzikoak egongo ziren, baina horiek ez ziren egingo ba udalaren aurrean. Eta agintari instituzionalek parte hartzen bazuten, seguruenera ez lukete egingo hain modu agerikoan. Munduan ez da inoiz egon festa bete-bete harrapatua izan nahi duen politikaririk. Ez bada Boris Johnson.

Gure zortzikora bueltatuz, hogeita minutu inguruz hainbat dantza egiten dituzte bertaratutakoek. Ez edonola, gainera, agiri historikoak aztertuta berreskuratutako modu jakin batean baizik.

## Agirietan oinarrituta

Indarra kultur elkartearen kideek 1987. urtean ikertu zuten dantza berezi hau, konturatu zirelako XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako hainbat idazlek halako bati egiten ziotela erreferentzia. "Agirietan azaltzen da udal guztia plazaratzen zela, eta zinegotzi eta alkateen familiakoak ere



## GARAICO MUSIKA ETA DANTZA PAUSOAK BERRESKURATZEN AHALEGINDU DIRA INDARRA TALDEKOAK

dantzan ateratzen zirela, eta horiekin batera aritzen zirela herritarrak, zortziko serio bat egiteko".

Honezkero jaietako programa ofizialeko hitzordu garrantzitsua bihurtu da. Hasiera batean arratsaldez egiten bazuten ere, 2004an proposatu zioten udalari Ama Birjinaren omenez egiten zen eguerdiko mezaren ostean egitea, eta hala izan da gaurdaino.

Oinarri historikoa izanda ere, hutsune asko bete behar izan dituztela dio Arcek. "Lurpetik arkeologoez zeramika pieza bat ateratzen dutenean ere hutsuneak bete behar dituzten modu berean". Dagoen informazio apurrarekin ezin da jakin zein zen musika zehatza, baina garaiko partituretan oinarritu dira jatorrizko testuinguruarekin ahalik eta antz gehien izan dezan. Berdina egin behar izan dute dantzekin. "Oso zaila litzateke pausu guztiak berreskuratzea, noski, baina ahalegindu gara".

Dena behar bezala atera dadin, abuztuaren 3an egingo dute entsegu nagusia, 21:00etan, plaza ahalik eta librean dagoen une batean, hain justu. Beti ere, abuztuaren 5ean dena ondo atera dadin. "Gogoa duen edozein pertsona batu daiteke festara". Gogoa eta bikotea baino ez dira behar, eta bigarrena, noski, beti aurkitu daiteke bidean. ■■■



Bikotea ateratzen dira dantzariak, txistu musikaren altzoan. INDARRA

# GEU TXOSNA 2022

**ABUZTUAK 3**

**18:00** INAUGURAZIOA  
ETA SARIA  
OIHANEDER EUSKARAREN  
ETXEA

**IGANDEAK JAI**  
AITOR VINAGRET  
ANE GEBARA

**19:30**

**20:00** DANTZA PLAZAN  
AZIÑO FOLKLORIKO

**KONTZERTUA**  
**TRIKOMA**

**22:00**

**EL KARLANA**  
**ZORIONA**  
**EUSKARA**  
**MAITASUNA**  
**KALEA**  
**INDARRA**  
**GUZTIONA**  
**JAI**

ORGANIZATZAILEA: INDARRA

MAITATZEA: INDARRA

ARTEZATZEA: INDARRA

GEU



# Loraldia ospatuko du GEUK

Aurten Aihotz plazara itzuliko da GEU elkartearen txosna; abuztuaren 3an inauguratuko dute Aitor Vinagret, Ane Gebara, Azido Folkloriko eta Trikoma taldearekin kontatuko duen jaialdi batekin.

## ERREDAKZIOA

Aurten berriz ere Aihotz plazan izango da GEU txosna, azken alditik hiru urtera; abuztuaren 3tik 9ra izango da zabalik. Gasteizko jaietan euskararen eta euskal kulturaren presentzia indartzearekin batera, GEU elkartearen finantziazio iturri garrantzitsua da txosna; 2013tik aurrera Blusa eta Nesken Elkarteen bitartez — txosnaren kudeatzaile ohia— eta 2019tik modu zuzenean elkarteak berak kudeatuta.

Zazpi urte horietan urtero bezala, aurten ere sei langile izango dira txosnaren programazioa aurrera ateratzeko, baina bederatzi egunetako txanda guztiak

betetzeko 200 boluntario beharko dituzte, montajerako, barrarako eta desmontajerako. Txosna goizetik goizaldera egongo da zabalik, baina txanda guztiak lau ordukoak dira, edonork egiteko modukoak. Horretarako, txanden deialdia zabaldu du GEUK, eta izena emateko galdetegi bat jarri du martxan lagundu nahi duten norbanako, kuadrilla zein taldeentzako. Dagoeneko ia txanda guztiak bete badituzte ere, oraindik bada lekurik, eta [info@geuelkarkea.eus](mailto:info@geuelkarkea.eus) helbide elektronikora idatzita eman daiteke izena; abuztuaren 2tik 10era bitartean bete behar dira txandak. "Bi urte luzeren ostean, txosna guztiok batera loratu behar dugu berriro. Eta

gogoratu, zuek zarete GEU!", aldarrikatu du GEU elkarteak.

## Loraldia

GEU txosnaren "loraldia" abuztuaren 3an, asteazkenean, izango da, Gasteizko jaien hasiera egunaren bezperan. 18:00etan, txosnaren inaugurazioa eta GEU Sariaren banaketa egingo dute; ondoren, 19:30ean *Eman egurre Pinotxo!* ikuskizuna eskainiko dute Aitor Vinagret eta Ane Gebara aktoreek; jarraian, 20:00etan, dantza plazan izango da, Azido Folkloriko taldearekin; eta, azkenik, Trikoma bandak kontzertua eskainiko du 22:00etatik aurrera.

Aihotz plaza, ohi denez, euskal kulturaren plaza izango da, eta



Hiru urteren ostean, Aihotz plazara bueltatuko da GEU elkartearen txosna. ALEA

ez dira faltako dantza plaza, bertso saioak edota kontzertuak. Taula gainean, Gozategi – abuztuak 5–, Olatz Salvador – abuztuak 6–, Harresian Zulo – abuztuak 7– eta Neomak – abuztuak 8– taldeak izango dira, 24:00etatik aurrera, eta, besteak beste, Iñaki Viñaspre, Sarai Robles, Manex Agirre, Jone Uria, Ekaitz Samaniego edota Orlando Arreitunandia izango dira eguerdiko bertso saioetan. 21:00etan, berriz, Larrain dantza eta Txulalai dantzatzeko hitzordua izango da egunero plazan, Udal Folklore Akademiako gaita jotzaileen eskutik.

#### ALEA ere plazan

Ekitaldi eta festa artean, Arabako ALEAk ere Aihotz plazan izango du txokoa jaietako egun nagusian, abuztuaren 5ean. 13:00etatik aurrera, asteko aldizkaria banatzearekin batera, umeentzako opariak izango dira eta Errigora saski baten zozketan parte hartu ahal izango dute gerturutzen direnek.

#### Euskararekin konpromisoa

Euskaraldia Gasteiz eta Blusa eta Nesken Batzordea, beste alde batetik, elkarlanean arituko dira *Jai giroan ere euskara ahoz aho* lelopean, euskararekiko konpromisoa eta atxikimendua erakusteko.

Azaroan egingo den Euskaraldiaren aurreko ariketa izango da; parte hartu nahi duten kuadrillek pegatina bat eramango dute *ahobizi* edo *belarriprest* moduan beren buruak identifikatuz, eta abuztuaren 6an jardungo dute rol horrek ematen dien eginkizunarekin. ■■■



# Hutsartea

Psikologia eta Gestalt terapia

Manuel Iradier 22, 1º oficina 1, 01005 Vitoria-Gasteiz · 659 653 375



Etxera  
bidea  
gertu

URRIAK 8  
DENOK  
DONOSTIRA!

Sarrerak salgai  
→ sare.eus/urrik-8



## MANIFESTAZIOA

ABUZTUAK 3, ASTEAZKENA

Gasteiz · 18:00 · Bilbo Plaza





Santiago egunean jokatu zituzten Emakumezkoen Gasteizko Pilotako II. Masterraren finalerdiak. ARABAKO EUSKAL PILOTA ELKARTEA

# Foru plazan, kirola eskuetan

Gasteizko Foru plazan bilduko dira jaietako kirol jarduera gehienak. Emakumezkoen pilotan, finalerdiak jokatu dira honezkero, eta azken finalaren zain daude orain zaletuak. Herri kirolak ere izango dira plazan.

## ERREDAKZIOA

Ez dago kirolik gabeko jairik, eta hala izaten da ere Andre Maria Zuriaren jaietan. Neskak eta blusak lehiatu ohi dira herri kiroletan, baina, egitan, normalean ez dute aparteko markarik lortzen, ez bada ondo pasatzearena. Profesionalek eta zaletuek dituzte horretarako beharrezkoa den abilezia eta trebezia.

Jaietan, egunero ikusi ahalko da trebezia hori Foru plazan, bertara eramango dutelako herri kirolen erakusketa zabal bat. Denetarik egongo da: harri-jasotzea, aizkora, trontza edota lasto-altxaketa, besteak beste.

Horien artean, noski, distira berezia izango du pilotak. Aperitiboa Santiago egunean bertan egon zen, egun horretan jokatu zituztelako Emakumezkoen Gasteizko Pilotako II. Masterraren lehen jardunaldiak: goizean eskuko finalerdien txanda izan zen, eta, arratsaldean, paletakoak.

### Lehia estua

Eskukoetan, Amaia Aldai eta Andrea Capellan nagusitu ziren (22-15) lehen partidaren. Lehia are handiagoa egon zen bigarrenean, baina, azkenean, Miren Larrarte eta Nora Mendizabal gailendu ziren (22-21). Lau neska hauek jokatuko dute, beraz,

abuztuaren 7an Foru plazako pilotalekuan izango den finala.

Paletakoetan, Ane Ibañez eta Naroa Saez izan ziren irabazle lehen partidaren; Haizea Salanueva eta Andere Canales, berriz, bigarrenen. Horiek ere, beraz, 7an lehiatuko dira, emozio handikoa izatea espero den final batean.

Egun horretakoa ez da izango, noski, jaietako pilota jarduera bakarra. Jaietan zehar Eskuz Binakako Andre Maria Zuria Txapelketa zein Green Capital Pala Txapelketa ere izango dira, zaletuen gozamenarako. Ohi bezala, partida hauek Foru plazan izango dira, baina, euria egiten badu, Ogeta pilotalekura eramango dituzte. ■



## Bikoteka

### ALDAI-CAPELLAN

Amaia Aldai "eskarmentu eta erabakitasun handiko" aurrelaria dela nabarmendu du udalak. Andrea Capellan errioxarra atzelaria da, eta pneumonia oso gogor baten ondorioz 2021ean frontoietatik urrun egon ondoren, lehen lerrora itzuli da.

### LARRARTE-MENDIZABAL

Miren Larrarte "joko alaia bilatzen duen pilotaria" da, tantoa bilatzeko prest dagoena. Nora Mendizabal Nafarroako Foru Erkidegoko Txapelketako egungo txapelduna da. Atzelaria, kantxan presentzia handia du, eta jo luzekoa.

### IBAÑEZ-SAENZ

Ane Ibañez paleta argentinarreko munduko txapelketetan eta Espainiako kopetan jokatu du. Naroa Saenz, berriz, Hernaniko pilotari trebea da.

### SALANUEVA-CANALES

Haizea Salanueva Gasteizen bizi den nafarra da, gomazko pilotari indartsuenetako bat gaur egun. Andere Canales, berriz, orozkoarra da, eta, besteak beste, Bizkaia Cup txapelketa irabazi du Olgeta elkartearekin.

**Egiten eta eragiten dugulako gara**

Euskara lanean txertatzen lagunduko dizugu

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOIA

bai euskarari elkarte

LAN ETA BIZI EUSKARAZ

baieuskarari.eus

**Jaietan ere LANGILEOK BORROKAN**

LAB



# Plazara bueltan

BERTSOLARITZA



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

**U**rteetako tradizioak bizitako nahitaezko etenaldia amaituta, bueltan da Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietan bertsoak entzuteko parada ere. Abuztuaren 5etik 9ra bitartean, eguerdiro izango da zita Aihotz plazan, 13:30ean.

Arabar zein han eta hemengo bertsolariak, arabar gai jartzaileek mimos emandako gaiekin arituko dira doinu, errima eta neurri ezberdinetan trebeki bertsoak harilkatuz. Ez da nolanahiko plaza Gasteizko jaietakoa, plaza erreferente eta garrantzitsua da, exigentea izatez gain. Gazte zein ez horren gazte, emakume zein gizonezko, lehen aldiz zein beteranotasunez hamaika herritatik gonbidatutako bertsolariak ariko dira oholtzan.

Andre Maria Zuriaren egunean Oihane Perea eta Nerea Elustondo izango dira Uxue Diaz de Cerioren aginduetara. Bigarren egunean Maddi Agirre eta Iñaki Viñaspre arabarrekin batera Aitor Etxebarriazarraga eta Sarai Robles arituko dira Etxaun Otañoren gaien eskutik. Igandean berriz, etxeokak diren Ekaitz Samaniego eta Manex Agirrerekin batera Maddi Sarasua eta Oihana Iguaran ariko dira Nieves Del Alamoren agindupean. Abuztuaren 8an, Arantxa Sobrinok gidatuko du saioa, bertan Paula Amilburu eta Orlando Arreitunandia arabar bertsolariekin Joanes Illarregi



Aihotz plaza kamustu ez dadin bertsoz zorrozuko dute bertsolariek. ABE

eta Nerea Ibarzabal Bizkaiko txapeldunak kantatuko dute. Eta oholtzan azkenak Andere Arriolabengoa eta Unai Anda arabarrak, Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi Gipuzkoako txapeldunarekin. Gidari lanetan Oier Suarez izango dute.

**EZ DA NOLANAHIKO  
PLAZA GASTEIZKOA,  
ERREFERENTE ETA  
GARRANTZITSUA DA,  
EXIJENTEAZ GAIN**

Ez da ordean egun hauetan Aihotz plaza plaza bakarra izango, izan ere abuztuaren 8an, 18:00etan, Foru plazan, Pilotagunean, kantari izango dira Oihane Perea, Irati Anda eta Iratxe Ibarra bertsolariak beteranoen pilota partiduetan. Eta egun horretan bertan mugimendu sozialistak antolatuta, 20:00etan Faroloitik hasita bertso poteoa izango da Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Oihane Perearekin.

Beraz, aurtengoan izango da Gasteizko jaietan bertsoz asetzeko betarik. ■



# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Izan zaitez ALEAkide!**

 **alea**KIDE



Gasteizen 2000. urtetik jartzen dute Abentura Gunea, jaietako gune arrakastatsuenetako bat. ALEA

# Mundua beraiena izango da

Naturaren mirariak: oinordetza genetikoa ziurtatzeko aparteko ahaleginak egiten dituzte gurasoek, berdin puzgarrien aurrean errenkada gordez, barraken oihanean amilduz zein disko-festetan askatuz.

## JUANMA GALLEGO

*Vaya semanita* saioan agertzen zen El Pelanasek behin baino gehiagotan esana zuen: bera bizitzaren unibertsitatean ikasitakoa zen. Eta, egia esanda, gehienetan hiperformatuta dagoen gizarte batean komeni da noizean behin ere unibertsitate horren lezioetara jotzea. Ondotxo dakite gurasoek. Enpirismoaren mirariaz, ez dute zertan marketina ikasi behar konturatzeko seme-alabei ezin zaiela esan larunbat goizeko plana psikomotrizitate gune

batera joatea denik. Adarra jotzeko modua izan daiteke, noski, nagusitan burokraziarekin lehiatu beharko dutenerako baliagarria izan dakiekeena. Baina, horraino.

Adin tarte batean bederen, benetako hitz magikoa *puzgarria* da. Hitz hori entzun eta zoramena abiatzen da. Tragedia bakarra da horietako batean sartzeko galtzerdiak eskatzen dizkiotenean txankleta hutsetan azaldu den ume gizajoari.

Formatu horren arrakastaren ispilu da Gasteizko jaietan duela bi hamarkadatik baino

gehiagotik formula errepikatzen dela: Abentura Parkea. Prado parkean lehen eta Arriagan orain, denetarik aurki daiteke bertan, hala nola abentura ibilbideak, tailerrak, kirol-pistak, eskulanak... eta puzgarriak, puzgarri zoragarri andana, mota, itxura eta adin-tarte guztietarakoak.

Bada pertsonaia bat, gainera, zintzo-zintzo azaltzen dena, hitzorduari huts egin gabe. Gargantua. *Interstellar* filmean horrela deitzen diote gizateriaren salbazioa izan daitekeen zulo beltzari, baina ez gaude, tamalez, horretaz



hizketan orain. Umeak jaten dituen txapeldun erraldoiaz ari gara. Batez ere ume txikienei beldurra baino ez die sortzen, denborarekin ikasten dutelako —adi, *spoiler*ra—, azkenean onik aterako direla munstroaren ipurditik. Bizitzan trebatzeko beste irakaspen garrantzitsu bat. Paulo Coelho inimiziaioa deituko lioke horri, eta gaiaren bueltan *best-seller* bat idazteko gai izango litzateke seguruenera.

### Mendizabalean, dotore

Behin plastiko berotuaren usainaz ahituta, zirt edo zart egiteko unea iristean, hil ala bizikoa dirudien erabaki horietako bat dator. Mikrosegundo gutxian garun primarioak prozesatzen duen hitz horrekin lehiatzeko unea. Oinarrizko instintu ebolutiboa atakan jar dezakeen horietakoa: barrakak.

Ez dago, ez, erdibideko jarrera posiblerik. Gizakiak barrakak maite ditu, eta gizakiak barrakak gorroto ditu. Bigarren taldean daudenek beti dute aukera haurrak aiton-amonen esku uzteko, barraketara


## AITON-AMONAK OSASUNTSU EGONDA, 'REGGAETOI'-AK EZ DIE KALTE ASKORIK EGINGO

eraman ditzaten. Azken finean, luzaroan hain osasuntsu bizi izan badira, *reggaetoi* pixkatxo batek ez dietelako aparteko kalterik eragingo.

Aurten ere Mendizabalean egongo da eskura udalak "dibertsiorako eta adrenalinarako" gunetzat jotzen duena. Ohi bezala, umeentzat ez ezik, helduentzako atrakzioak ere egongo dira. Norberak erabaki dezala zer egin bere bizitza eta aziendarekin, noski. Inflazio garaietan interes publikokoa izan daitekeen datu bat ematera mugatuko gara hemendik: prezio "herrikoi" hitzorduek hauek izango dira: abuztuaren 28an, arratsalde; abuztuaren 6an, 11:30etik 14:30era; eta abuztuaren 10ean, arratsalde.

Behin *motomamiaz* eta azukre kotoiaz ase eginda, barraken biharamuna baliatu daiteke arte

eszenikoetara jotzeko. Hurrei bideratutakoak ere izango dira, noski. Kasurako, *Txus eta Txu* ezagutzeko moduan egongo dira umeak eta haien alde daudenak —ez du balio umeak antzerkian utzi eta txosnara hurbiltzeak, ez—. Kasualitatez, auzokide bihurtu berri dira, eta elkarbizitzen ikasi beharko dute. Ez da bide erraza izango. Izan ere, Txusek landareak eta animaliak biziki maite dituen emakumea da, eta haiekin mintzatzen da. Txu auzokide berriak, berriz, alergia die loreei, eta arratsaldeko bostetan tea hartzen duen gizon dotore horietako bat da. Zer atera daiteke gaiziki? Ba, hara beste *spoiler* bat: gauza asko. Peñafloidako Kondearen plazan izango da publiko guztientzako euskarazko antzerki hori, eta toki berean izango dira beste hainbat antzezlan: hori bai, Mieltxo Cervantesen hizkuntz garbian. Eskerrak arratsaldearen amaieran haurrentzako dantzalekua jarriko duten. Abuztuko kanpineko txiki-diskora prestatzen joateko modu bikaina. ■



# Ba al dakizu nola gauzatuko duzun jardunaldiaren erregistroa?

INFORMA ZAITEZ ORDUTEGI KONTROLERAKO SOLUZIOAREN INGURUAN

Hitz egin dezagun!  
**945 067 219**  
eteekin.eus | orekait@eteekin.eus

Enpresa guztiek nahitaez bete beharreko araua.







ELS JOGLARS

## Umorea, udako osagai nagusia

Bueltan da Araiaiko Umorea Antzerki Jaialdia, munduko hainbat txokotatik datozen umore antzerki taldeekin. Beti bezala, Araia izango da topagunea, abuztuaren 12tik 15era, eta Arabako gainerako tokietako ohiko antzerki zirkuitua izango du lagun; abuztuan zehar, guztira, 43 emanaldi izango dira, 25 herritan, 14 konpainiaren eskutik. Ikuskizun nagusien artean, aurtan Els Joglars Kataluniako konpainiaren *Que salga Aristófanes* lanaren umore ganberroarekin, *Fadoak entzuten zituen gizona* euskarazko komediarekin edo La Calorica taldearen *Las Aves* lan sarituarekin edota Colette Gomette & Anna de Lirium konpainiaren azken lanarekin gozatu ahal izango da Araiaiko Arrazpi Berri kiroldegian.



TANXUGUEIRAS

## Musika eta gastronomiak bustita

Arabako Errioxako Esferica jaialdiaren bigarren edizioa abuztuaren 18tik 21era ospatuko dute, natura eta ondare-gunerik ikusgarrienetako batzuetan, musika, artea eta enogastronomia batuko dituen programa erakargarriarekin. Taula gainean, Mon Laferte, Ivan Ferreiro, Kruder & Dorfmeister, Tanxugueiras, Glassio, The Excitements, JP Bimeni & The Black Belts, Ele, Dani, Los Mejillones Tigre, Elena Setien, Omago German Salto, Mute All DJ eta Angel Carmona ikusteko aukera izango da. Eta aurtengo nobedadeen artean, eskaintza musikala osatzeko, esku hartze artistikoak egingo dituzte eskualdeko zenbait txokotan, Artium museoaren eskutik eta Performa kooperatibaren komisariotzarekin.



LAUDIOKO UDALA

## Terentzio eta Tomasaren erritmora

Pandemiarengatik izandako bi urteko etenaldiaren ostean, abuztuaren 14an emango diote hasiera, berriz ere, Audioko jaiei. Terentzio eta Tomasa erraldoi maiteek izango dute pregoia irakurtzeko ohorea, hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea duten Jose Ignacio Goikoetxea eta Sebastian Martinen eskutik. Gainera, azken lau hamarkadetako programa bakoitzaren parte izandako Javi Arteta udal langile ezagun eta maitatuak botako du txupina, "bere inplikazioagatik, jarrera onagatik eta lankidetzagatik". Abuztuaren 28ra bitartean, besteak beste, Doctor Deseo, Despistaos, Zea Mays, Puro Relajo, Los Chimberos, Korrontzi eta La Oreja de Van Gogh-en musikak girotuko ditu Audioko plazak.



CHILL MAFIA

## Indarberrituta datoz Amurrioko jaiak

Egitarau oparoaren artean, besteak beste, gaueko musika programazio zabala aurkeztu dute abuztuaren 12tik 17ra ospatuko diren festetarako. Kontzertuen artean, Mendiko Eskolan izango diren Celtas Cortos eta Chill Mafiarena dira aipagarri. Nabarmenak dira, baita ere, Neomak edo Puro Relajo taldeek Juan Urrutia plazan eskainiko dituzten kontzertuak. Gainera, aurtan, elkartasun ekimena antolatu dute; udala Amurrio Trail taldearekin harremanetan jarri ondoren, txosna solidarioa paratuko dute Mendiko Eskolan abuztuaren 13an eta 14an egingo diren kontzertuetan. Txosna solidariotik lortutakoa X Hauskorren Sindromearen Euskadiko Elkartearentzat izango da.



GREG IZOR

## Lorategia dantzan jarriko dute

Ekainaren 25az geroztik, udako asteburuetan musikak hartu du Falerina, Belar Sounds musika zikloari esker, eta abuztuaren 20an eskainiko dute hurrengo kontzertua. Matt Horan & The C.A.F. Band iritsiko da Gasteizko muinoko lorategira. Matt Horan (Dead Bronco taldearen lider gisa ezagunagoa) iparramerikarraren proiektu berria da eta countrya, bluesa eta western swinga nahasten ditu *rednec* jarrerarekin. Abuztuaren 27an, Texaseko Greg Izor artista iritsiko da; denetik egiten duen artista da, eta ahots liluragarria eta harmonika-jotzaile gisa maisutasun handia ditu. Belar Sounds irailean amaituko da Memphis eta Mississippi Queen & The wet dogs taldeekin.



THE POWER REVOLUTION

# GUSTUKO DUZUNA EGITEKO **POWERRA** NAHI BADUZU ZATOZ KUTXABANKERA



KUTXABANK  
**KORNER**

[kutxabankcorner.eus](http://kutxabankcorner.eus)

**TXARTELAK K26/K26+, DESKONTUAK,  
IKUSKIZUNAK, ZOZKETAK ETA ASKOZ GEHIAGO.**

Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbao. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza  
Erregistroan inskribatuta: 5226 liburukia, 0 liburua, BI-58729 orria, 1. folioa, 1. inskripzioa.